



BARREN

TOKIKOM

Elgoibarko euskalgintzaren  
eta kulturgintzaren egoeraren  
*diagnosia*  
Liburu Zuria / lehen urratsa 2020

**Ibilbide baten abiapuntua**



*Elgoibarko 104 entitatek eman dugu izena Euskaraldian parte hartzeko eta 419 arigune sortu ditugu.*

*Gurea ere bada Elgoibarren gero eta euskara gehiago erabiltzeko ardura.*

### UDALA ETA BERE ARDURAPEKOAK

- Elgoibarko Udala
- Gotzon Garate Udal Liburutegia
- Udal Kirol Patronatua
- Udal Ludoteka
- Udal Gaztelekua
- Eguneko Zentroa
- Elgoibarko Jubilatuen Elkarte

### BESTE ENTITATE PUBLIKO BATZUK

- San Lazaro egoitza (Biharko Taldea)
- Debemen
- Elgoibarko anbulatorioa
- Elgoibarko KZgunea
- Elgoibarko KIUB-OMIC

### ENPRESAK ETA LAN-MUNDUA

- Arrizabal Elkarte
- Berkoa
- Danobat
- Danobatgroup
- Etxe-Tar
- Goiti
- Goki
- HRE Hidraulic
- Ideko
- Sisfle
- Etxepe
- 11 ikusteko

### HEZKUNTZAKOAK ETA EUSKALTEGIAK

- AEK euskaltegia
- Debabe Udal Euskaltegia
- Elgoibar BHI
- Elgoibar Ikastola
- Elgoibarko Herri Eskola
- IMH Fabrikazioaren Zentru Aurreratua
- Inazio Bereziartua Musika Eskola
- Makina Erremintaren Museoa Fundazioa
- Meka Lanbide Heziketarako Ikastetxe Integratua

### ELKARTEAK ETA GIZARTE MUGIMENDUAK

- ArTaldea Elgoibarko Artisauen Elkarte
- CD Elgoibar
- Elgoibarko EA
- Elgoibarko EAJ
- Elgoibarko EH-Bildu
- Elgoibarko Errigora
- Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea
- Elgoibarko Udal Txistulari Banda
- EME Elgoibarko Musikarien Elkarte
- Haritz Euskal Dantzari Taldea
- Kalamua Guraso Elkarte
- Morkaiko Mendizale Elkarte
- Narrutsik Elgoibarko Feministak
- PuntuEUS Fundazioa
- Sanlo Eskubaloia Taldea

### MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

- Aita Agirre Kultur Kafea
- Amaia Mendikute fruta denda
- Aramburu bitxi denda
- Arauri lurrindegia eta estetika zentroa
- Armueta harategia
- Astigarraga Kirolak
- Banco Sabadell
- Bankoa
- BBVA
- Beitia Arriola fisioterapia eta hortz klinika
- Belaustegi Baserrria jatetxea
- BM supermerkatua (Uvesco)
- Caixabank
- Castrillejo estankoa
- Cristina Garcia estetika eta terapia naturalak
- Ecenarro lenteria
- Elena ile apaindegia
- Eroski City
- Errosario hortz klinika
- Etxeberria tanatorioa
- Fadak ile apaindegia
- Farmazabal parafarmazia
- Gabi jatetxea
- Garate jantzi denda
- Garbiñe estetika
- Gerardo Nantezon hortz klinika
- Gertu fisioterapia
- Hezi osasun zentroa
- Ibarrenea okindegia
- Idama ile apaindegia
- Ikus federopticos
- Iriondo Kirolak
- Irune Arriola Andonegi botika
- Izakara estudioa
- Kala loradenda
- Karkizano mertzeria
- Kutxabank
- Laboral Kutxa
- Maria Urizar ile apaindegia
- Marian fruta denda
- Meraki ile apaindegia
- MGS aseguruak
- Moma jantzi denda
- Nalai oinetakoak
- Nava inprimategia
- N° 1 en zapatillas
- On informatika
- Pitxintxu opari denda
- Prest tindategia
- Rural Kutxa
- Sahatzu harategia
- Sara fruta denda
- Silvia janari denda
- Txillarre ekodenda
- Uzuri optika
- Ziarda harategia
- Zure alde abokatuak

## "Txaparik gabe jendeak gaztelaniaz egiten dit, baina txapa jarri nuenean jende gehiagok egin zidan euskaraz"

- Matteo Cantu -

### Emilio Fernandez *Belarriprest*



"Belarriprest rola aukeratu nuen lehenengo edizioan, eta erraz moldatu nintzen. Ariketa honetan uste dut zailagoa dela *Ahobizi* izatea, horrek eskatzen duelako euskaraz hitz egiteko ohitura ez duzun horiekin ere euskaraz egitea, eta niri hori zaila iruditzen zait. Ariketa inter-

resgarria dela uste dut eta egun horietan behintzat jendeak gehiago egiten du euskaraz. Egia da txapa kendu eta berehala lehenengo ohituretara itzuli ginela asko, baina zerbait geratzen da. Ni euskara ikasten ibili nintzenean ez zegoen Euskaraldirik eta iruditzen zait horrelako ekintzak oso egokiak direla euskara ikasten ari direnentzat".

### Alaitz Almortza *Ahobizi*



"Ariketa interesgarria iruditu zitzaidan hasieratik, eta berehala erabaki nuen parte hartzea. *Ahobizi* rola hartu nuen. Egunerokoan, Elgoibarren bereziki, euskaraz bizi naiz baina orain Bilbon ikasten dut eta konturatzen naiz askotan lehen hitza ez dudala euskaraz egiten. Hori aldatu nahi

nuen eta *Ahobizi* izan nintzen egunetan kontzienteki bete nuen nire helburua. Txapa kendu nuenetik saiatu izan naiz jarrera horri eusten, baina batzuetan oraindik konturatzen naiz, aurrean dudan pertsonaren arabera, batzuetan gaztelaniaz egiten dudala lehen hitza. Aurten berriz hartuko dut parte, hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa oso ona delako".

### Matteo Cantu *Belarriprest*



"Aurreko edizioan *Belarriprest* izan nintzen, eta nahiko ondo moldatu nintzen. Euskaraz ulertzen dut, baina *Ahobizi* izateko maila nahikorik ez daukat. Ariketa polita izan zen. Txaparik gabe jende gehienak gaztelaniaz egiten dit, baina txapa soinean izan nuen denboran jende gehiagok hitz

egin zidan euskaraz. Lanean ez nuen aldaketa handirik nabaritu, gaztelaniarako ohitura daukagulako askotan, baina kalean eta lagunartean bai. Iruditzen zait Elgoibarren jende askok hitz egiten duela euskaraz, baina hiriburuetan egoera desberdina da, eta Euskaraldia bezalako ariketak egokiak direla uste dut. Italiatik iritsi nintzenean bi urtez jardun nuen AEK Euskaltegian".

### Maria Jesus Aduriz *Ahobizi*



"Ahobizi txapa aukeratu nuen lehenengo edizioan, eta orain ere rol berbera aukeratuko dut seguruenik. Euskara da nire hizkuntza eta ohituta nago euskaraz hitz egitera, beraz, ez zitzaidan zaila egin *Ahobizi* izatea. Guk dena egiten dugu euskaraz etxean; euskaraz bizi gara. Euskaraz ez dakienari

egiten diot gaztelaniaz, jakina, baina bestela nik euskaraz hitz egiten dut beti. Euskaraldia bezalako ekimenak beharrezkoak dira euskararentzat, eta horrelako ekimenekin uste dut jendea animatzen dela euskaraz gehiago egitera. Egun horiek pasatu ondoren batzuk lehengora itzuliko dira berriz, baina esango nuke gehienengan eragiten dutela horrelakoek".



JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea



## Eskerrik asko, Gotzon

haize horien antzera. Trabatuta, gaur bezalaxe.

Zuritasuna berrir, zuritasun tematika. Errazagoa zen papera eta boligrafoa erabiltzen nituen sasoi haietan; orduantxe, behintzat, zentzurik gabeko zirriborro eta marrakiz belzten nuen zuritasuna. Mamu bat dirudi, edota nire amak errekaldeko hedagailuan eskegitzen zituen usain oneko izara horietako bat.

Laster, Jack Nicholsonen itxura hartuko dut, *El Resplandor* filmean mendiko hotel hartan idazmakinan etengabe atso-titz hura errepikatzen zueneko. "Goiz jaikia, ezta egunsentia "Esaera zaharra..., entzun eta zurekin gogoratu naiz.

*"Halako batean,  
nire begiak egutegian  
pausatu dira, zirkulu  
gorriz markaturiko datan:  
urriak 8"*

Halako batean, nire begiak egutegian pausatu dira, zirkulu gorriz markaturiko datan: urriak 8. Orain 12 urte izan nuen zure heriotzaren berri, ondo dut gogoan non: Aixerrotako irakasleen gelan, lankide batek esanda. Eta negar egin nuen, zotinka. Pare bat urte lehenago gure etxera etorri zinen bisitan. "Paraje ederrean bizi zara, Juan Luis, baina ez duzu Elgoibar faltan izaten?" Egun hartan, gauza txiki ez mintzatu nintzen gizon handi batekin, eta aholku batzuk ere eman zizkidan literaturaren inguruan.

"Ongi idazteko, zer egin, Juan Luis? Irakurri eta idatzi egunero. Kritikak irakurri, eleberririk nola eraiki ikasteko. Zentzu guztiak ipini dantzan, eta munduan barna ibili. Euskara aberastu, idazle klasikoak irakurri, adibidez. Eta azkenik, ekin lanari. Esandako guztia gogoan baduzu, idazle ona izan zaitezke."

Eskerrik asko, Gotzon, zauden lekuan zaudela ere, artikulu hau bukatzeko emandako laguntzagatik.

**B**i ordu dira, dagoeneko, ordenagailuaren aurrean nagoela, eta pantailaren zuritasunak ez du amerikar ematen. Zuritasun urdin horrek... beldur naiz ez ote nauen betiko itsu utziko. Altxatu egin naiz, bosgarren aldiz, oraingoan komunera. Beste kafe bat ez, Juan Luis, gero tentsioa... Nola arraio egingo dute egunkarian egunero artikulu bat idazten duten horiek? Bitxia izaten da. Batzuetan, gutxitan baina, hitzen borrorak arrapaladan irteten dira, janari oparo baten ostean jaurtitako korroskada lotsagabe horietan bezala, eta beste batzuetan, hantxe gelditzen dira gordeta, heste meharretan trabatutako



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaoa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ ESKERRIK ASKO GUZTIOI!

Tamalez, larunbat honetan ez zen posible izan Morkaikora igotzea. Eguraldiak ez zuen batere lagundu, eta, azkenean, plan hori atzeratzea erabaki zuten. Eskerrak eman nahi dizkizuegu ekimen honen antolaketan, era batera edo bestera, lagundu duzuen guztioi: zuen bideoak bidaltzen, gutuna sinatzen, bertsoak egiten eta, nola ez, Kalegoen plazara argazkia ateratzera etorri zineten guztioi. Ekimenak sortutako ilusioa eta animatu den herritar kopurua ikusirik 2021eko maiatzaren 8ra atzeratzea erabaki dugu mendietara igotzea, baldintza egokietan egiteko aukera izango dugun itxaropenarekin. Barka-

mena ere eskatu behar dugu erabaki honen berri ez zelako heldu herritar guztiengana, eta egon zirelako batzuk Kalegoen plazara azaldu zirenak Morkaikora igotzeko asmoz. Bestalde, errealitatearen gordina berriro azaldu zaigu aste honetan egon diren atxiloketekin. Bakea, elkarbizitza eta konponbidera baino gehiago, orain dela hamabost urteko garaietara garamatzate atxiloketok. Espetxeak hustu eta presoak etxeratzeko ordua da, ez betetzekoa. Urriaren 24an izango dugu hurrengo erronka. Donostia eta Kontxako hondartza beteko ditugu mundu osora zabalduko den mosaikoa egineko. Euskal presoak etxera!

Sare Elgoibar

### ▶ OHARRA

Urriaren 12a jai eguna dela-eta, datorren astean ez dugu BARREN astekaria kaleratuko. Hurrengo alea urriaren 23an jasoko duzue.

BARREN



#### I. URTEURRENA

### Jose Mari Astorkia Ibarluzea

2019ko urriaren 10ean hil zen, 76 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, domekan, urriaren 11n, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi aldezturik eskerrak.



#### I. URTEURRENA

### Miguel Jose Villanueva Sarasa

2019ko urriaren 12an hil zen, 85 urte zituela.

**Isiltasunean izan ziren  
zure lana eta bizitza,  
beti izango zara  
gure oroimenean eta bihotzean.**

Etxekoak




#### II. URTEURRENA

### Enrike Etxaniz Osoro

"Munaundi"

2018ko irailaren 30ean hil zen, 79 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurrenako meza izango da, domekan, urriaren 11n, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi aldezturik eskerrak.



## Teknologia berriak garatzeko indarrak batu dituzte IMHk eta Tecnaliak

IMHk, Fabrikazio Aurreratuko eta Digitaleko Campusak, eta Tecnalia ikerketa eta garapen teknologikoko zentroak I+Gko eta Prestakuntzako Foku bat sortu dute proiektu berrietan lankidetzaz sustatzeko, industriari laguntzeko ahalmena indartzeko eta profesionalen belaunaldi berriak prestatzeko. IMHtik jakinarazi dutenez, Europako Batasunak apustu "sendoa" egin du fabrikazio aditiboaren eta hari lotutako teknologien alde azken urteotan, Europako industriaren eraldaketa eta lehiakortasun bektore gisa, 4.0 fabrikazio deritzonaren ikuspegitik. Forbes-en arabera, merkatu horrek 35,6 mila milioi dolar sortuko ditu 2024an, mundu osoan:



"Hurbileko industria-inguruneak teknologia horiek eskatzen ditu, eta fabrikazio aditiboko prozesuetan trebatutako profesionalak behar ditu", adierazi dute. Lankidetzaz astlehenean zigitatu zuten

IMHko (Elgoibar) Additive Village instalazioetan. Bertan izan ziren Ixaka Egurbide IMHko zuzendari kudeatzailea eta David Sanchez Tecnaliako Industria eta Garraioko zuzendaria.

## Mendaroko Udalak hainbat ekintza eta zerbitzu jarri ditu berriro martxan

Mendaroko Udalak jakitera eman du hainbat ekintza eta zerbitzu berriro martxan daudela, besteak beste, Azpilgoetako Kultur Etxean emango dituzten ballet, pilates, dantza modernoak, xakea eta antzerkia. Era berean, Mendaroko Ludoteka, gaztelekua eta pelota eskola ere martxan daude. Segurtasun neurriak bermatzeko, ekintza bakoitza neurri bereziak errespetatuz egingo dela ohartarazi du Mendaroko Udalak. Azpilgoetako Kultur Etxeko goiko aretoan gehienez hamar pertsonarentzako lekua izango da, eta behekoan, berriz, bost pertsonakoa. Ikasturte hasieran Udalak arduradunei eskuak garbitzeko gela banatuko die. Gaztelekua irailaren 18an hasi zen eta gehieneko aforoa 38 pertsonakoa da, arduraduna barne, eta ludoteka, berriz, irailaren 21ean hasi zen 30 pertsonako aforoarekin. Ekintza guztietan garbiketa zerbitzua indartu du Udalak eta erabiltzaileek onartze-orri bat sinatu beharko dute, non adierazten duten sintomarik ez dutela eta temperatura hartuta etorri direla. Saiok amaitu ondoren, arduradunek materiala garbitu eta lokala aireztatu dute, eta Udalak gomendatzen du ikastolak antolatutako talde egonkor berdinekin aritzea. Ezinbestekoa da zerbitzu guztietan maskara erabiltzea eta pertsonen artean 1,5 metroko distantzia mantentzea.



## Denda atarietara atera zituzten salgaiak asteburuan Txankakuako merkatariek

Maalako stock feria egin ordez, denda atarietara atera zituzten salgaiak asteburuan Txankakuako merkatariek. Eguraldi euritsuak eta hotzak gehiegi lagundu ez zuten arren, 23 merkatarik hartu zuten parte ekimenean. Ekimen hau herriko ekonomia suspertzeko ekintzen barruan sartu du Udalak eta erosketak egin zituztenez artean 100 euroko hiru erosketa bono zozkatu zituen. Txankakuako arduradunek astlehenean egin zuten zozketa, eta dagoeneko agertu dira irabazleak: Esther Irigoyen, Angel Gil eta Beatriz Agirre.

## Urruzunoko zabortegiko lurpeko gasak aztertze bost putzu zulatu ditu Mankomunitateak

Urruzunoko zabortegi zaharreko bigarren gunea zigilatu eta bertako ingurumena berreskuratu nahi ditu Debabarreneko Mankomunitateak. Horretarako, zabortegiaren lurpeko gasak aztertu behar dituzte aurrez, eta horretan dihardute. Mankomunitateko arduradunek azaldu dutenez, zabortegiaren eremu horretan, Elgoibarko Albitzuri industrialdearen ondoan, "hondakin industrial geldoak" laga zituzten 2001 eta 2006. urteen bitartean. Hori dela-eta, gunea hori zigilatze prozesuan zabortegia egon zen lurpeko zatian egon daitezkeen gasak bildu eta ezabatzeko sare bat izatea beharrezkoa da, Eusko Jaurlaritzak Ingurumen Baimen Bateratuan adierazitako baldintzak betetzeko.

Mankomunitateak 8 eta 12 metro arteko eta 350mm-ko diametroko bost zulaketa egin ditu, kanpai itxurako hodiak instalatzeko. Hodi horiek ondoren gasen analisiak egiteko erabiliko dituzte. Bost zulaketetan instalatutako hodiak 1,70 metroko luzera dute goraka, "ingurumen-baimen integratua aurreikusitako zigilatze-sekuentzia ahalbidetzeko".

Zehaztu dutenez urrian kontratatuko dute gasen analisiak egiteaz arduratuko den enpresa, 2006ra arte isuritako hondakinen deskonposizioan sortu diren gasak zehatz-mehatz ezagutzeko. Dauden gasak eta horien kontzentrazioak ezagutu ondoren, horiek erazteko dagoen teknirik onena zein den baloratuko dute. Bost putzuak zulatzeaz gain, Mankomunitatea beste lan batzuk egiten ere ari da zabortegi zaharra zigilatze: lurzorua aurretiazko txostena, Ingurumena Zaintzeko Programaren testu bateratua eta Balantze Hidrikoa egiten. Azterlan horiek guztiak Urruzunoko zigilatu eta bertako ingurumena berreskuratu aurreko lanak direla azaldu dute.

## Elgoibarko artisauen azoka egingo dute urriaren 17an Maalako parkean



ArTalde Elgoibarko Artisauen Elkarteak azoka egingo du urriaren 17an Maalako parkean. Aurten elkarteko sei kidek hartuko dute parte: Magi (bitxiak), Zu + Ni (oihalak), Bitxi-bitxi (bitxiak), Xarlem Creations (bitxiak eta oihalak), Ana Mosacula (xaboiak) eta Team Andcarte (egurra). 10:00etatik 14:00etara egongo dira artisauak euren produktuak saltzen.

Koronabirusaren pandemia dela-eta, herritarren segurtasuna bermatzeko hainbat neurri hartu dituzte antolatzaileek. Azokako postuak bisitatzeko norabide bakarra egongo da, erosleek eskuak garbitu beharko dituzte edozein postutara gerturatzeko, eta saltzaile bakoitzak bezero bakarra edo familia unitate bereko kideak soilik artatu ahal izango ditu une bakoitzean.

## Elgoibarko Udala, Europako Bikaintasun zigiluaren bila

Europako Kontseiluak ematen duen Gobernantzen Bikaintasuneko Europako Zigiluak "gobernantza ona eta kalitate demokratikoa" neurtzen ditu. Elgoibarko Udala orain hiru urte ere saiatu zen aitortpena eskuratzen, eta bigarren saiakera egingo du orain. Elgoibarko Udalak jakitera eman du hurrengo deialdian hautagai izateko aukera izango duela. Horretarako, eta lehen urrats gisa, Grupo Betean aholkularitza zerbitzua bidez, bi galdetegi prestatu dituzte, bata udal gobernu eta oposizioko zinegotzientzat, eta bestea herritarrentzat. Galdetegi galderak gobernantza onaren Europako 12 printzipioei (besteak beste, gardentasuna, parte-hartzea, portaera etikoa, efikazia eta efizientzia, finantza-kudeaketa osasuntsua, berrikuntza, berdintasuna, giza eskubideak eta aniztasuna) buruzko adierazle-multzo batean oinarrituta daudela jakinarazi dute, eta Udalaren gobernu-kalitatea neurtzea da inkesta hauen helburua. Betean taldeak berak jaso eta aztertuko ditu galdetegi emaitza guztiak. Galdeketa Udalaren [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean osatu ahal izango da, eta urriaren 15era arte bete ahal izango da.

## Zahar etxeetako langileek berriz ekin diote grebari

Gipuzkoako zahar etxeetako beharginek, tartean Elgoibarko San Lazaro egoitzakoek, bertan behera laga zuten 242 egunez jarraian egindako greba joan den martxoaren 13an, pandemiak erantzukizunez jokatzea eskatzen ziela ondorioztatuta. Orain, grebari berriz ekitea erabaki dute ELA eta LAB sindikatuek, langileen baldintzak eta erabilitzaileei eskaintzen zaien zerbitzua hobetuko dituen hitzarmen kolektibo baten alde. Martitzenean hasi zituzten protestak: goizean manifestazioa egin zuten sektoreko langileek Donostian, eta arratsaldeak kontzentrazioak izan ziren herrietan, tartean, Elgoibarren.



### Hainbat ekintza antolatu ditu Atxutxiamaikak urritik abendura bitarterako, 'Aldenik Alden' programaren barruan

Atxutxiamaika aisialdi taldeak hainbat ekintza antolatu LH4tik LH6ra arteko gazteentzat, *Aldenik Alden* programaren barruan. Urritik abendurako eskaintza prestatu dute, baina momentuz urrirako dituzten ekintzak aurkeztu dituzte: Orientazio proba bat antolatu dute urriaren 17rako, eta gau beltza berriz, urriaren 31rako.

Orientazio proba Idorben egingo dute, 9:30etik 13:30era bitartean. Gau Beltza, aldiz, arratsaldez izango da, 16:00etatik 20:00etara, Kultur Etxeko sotoan. Ekintza bakoitzaren prezioa 10 eurokoa da (bazkideek, 9 euro). Interesatuek urriaren 12ra arte dute izena emateko aukera. Covid19a dela-eta, izenematea online egitea hobestu dute arduradunek, [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean. Dena dela, bulegoan izena emateko aukera ere badago, horretarako txanda eskatuta. Informazio gehiagorako 943 741 626 telefonora deitu daiteke.

### Presoen eskubideak betetzeko eskatu zuten zapatuan 'Izan bidea' egitasmoaren barruan



Euskal presoen eta iheslarien eskubideen alde, Euskal Herriko mendi tontorretara igotzeko deia egin zuen Sarek zapaturako, *Izan Bidea* egitasmoaren barruan, baina eguraldiak hala behartuta, bertan behera laga zuten deialdi hori. Horren ordez, plazak betetzera deitu zituzten herritarrak. Eguraldi hotz eta euritsua egin zuen arren, Elgoibarren eta Mendaron batu ziren hainbat herritar euskal preso eta iheslariari babesa erakusteko. Antolatzaileek barkamena eskatu dute, herritar batzuek ez zutelako jaso egitasmoa bertan behera geratu zen abisua eta ondorioz Kalegoen plazan agertu zirelako Morkaikora igotzeko asmoz. Printzipioz, maiatzaren 8ra atzeratu dute mendi gailurretara igotzeko plana, udaberriaren eguraldi hobea egingo duelakoan. Udaberriaren abiatu zuen Sarek *Izan Bidea* egitasmoa eta horren barruan Euskal Herriak dituen biztanle beste kilometro egitea da asmoa



## Batxilergoko 164 ikasle konfinatuta daude Elgoibarko institutuan koronabirus agerraldi bategatik

Elgoibar BH Institutuko 164 ikasle konfinatu dituzte aste honetan, hainbat koronabirus kasu agertu direlako ikasleen artean. Osasun Sailak agerralditzat hartu du Elgoibarko Institutuko egoera, eta ondorioz, Batxilergoko lehen mailako ikasle guztiak bidali dituzte etxera. Astelehenean bi gela konfinatu zituzten, gela bakoitzean kasu positibo bana azaldu zelako, eta horien gertuko kontaktuei eta gelakideei egin zizkieten PCR probak. Ondorengo egunetan kasu gehiago atzeman zituzten, eta, ondorioz, maila osoa konfinatu zuten. Ikasle guztiak bi PCR proba pasatu beharke dituzte. Ondorioz, bi gela hilaren 13ra arte egongo dira etxean, beste gela bat hilaren 15era arte eta gainerako hiru gelak hilaren 17ra arte, betiere positiborik agertzen ez bada.

Ikasleak online ari dira eskolak jasotzen, bideokonferentziaz eta Interneteko beste hainbat plataformaren bidez. Gurasoei lasaitasun mezua helarazi nahi izan die Iñaki Odriozola ikastetxeko zuzendariak, ikasgai guztiak bere osotasunean ematen ari direla esanez.



Ikasleez gain, sei irakasle ere konfinatuta daude, irakasle batek positibo eman duelako. Iñaki Odriozola zentroko zuzendariak jakinarazi duenez, irakasle hori ikastetxetik kanpoko ekitaldi batean kutsatu zen ustez.

Mendaron ere, LH5eko gela bat konfinatu dute ikasleetak batek positibo eman duelako. Ondo bidean, hilaren 13an itzuliko dira gelara.

## Errementari eta abarkagile ofizioen erakustaldia egingo dute hilaren 17an Makina Erremintaren Museoan



Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, antzinako ogibideen erakustaldiak antolatu ditu bigarren urtez Makina Erremintaren Museoak. Iaz grabatzailearen lana erakutsi zuten, eta aurten Ricardo Mediavilla errementariaren eta Martin Sukia abarkagilearen ofizioak ikusteko aukera egongo da. Iaz kalean egin zuten erakustaldia, baina aurten, koronabirusaren eraginez, museoan bertan egingo dute ekitaldia, 11:30etik 13:00etara. Doan izango da, eta gehienez, 9 pertsonako taldeak osatuko dituzte. Arduradunek eskatu dute aldeztu aurretik izena emateko: [museoa@museoa.eus](mailto:museoa@museoa.eus) emailen edo eta 943 748456 telefono zenbakian. Foru Aldundiko Kultura Departamentuak Ondarearen Europako Jardunaldien bosgarren edizioan ehun bat jarduera eta 150 ekitaldi izango dira Gipuzkoan zehar, 70 erakundek antolatuta. Programa irailean hasi zen eta azaroan amaituko da.

## Hasi dituzte Mendaron Azpilgoeta auzoa eraberritzeko lanak

Hasi dituzte Azpilgoeta auzoa eraberritzeko lanak, eta gutxienez lau hilabete iraungo dute. Udaletik azaldu dutenez, pertsona ororentzako irisgarritasuna bermatzea da eraberritze proiektuaren ardatza, eta, hortaz, eremu osoa maila berean jarriko dute, espaloiak jaitziz, eta mailak eta beste elementu batzuk kenduz. Erramu zaharra dagoen parkearen eremua handitu egingo dute, eta, horrela, gune hori erdiguneko plaza bihurtuko dute. Berdegune berriak sortuko dituzte, lorontzi, zuhaixka, banku eta abarrekin, bizikidetzeta eta belaunaldiartekotasuna sustatzeko. Autoentzako aparkaleku kopurua mantenduko da. Azpilgoeta auzo erdigunean 2.570 metro koadro iragiten dioten lan hauek 282.504,83 euroko aurrekontua dute, BEZ gabe. Irisgarritasun lanez gain, Ur Zerbitzuekin elkarlanean, euri-uren eta ur beltzen sarea ere berrituko dute, eta baita egungo hoditeria ordezkatu ere.



# Azken gozoa

**Jakina zen Muruamendiaraz gozotegia hartzekodunen lehiaketan sartuta zegoela eta laster izango zuela azkena, eta halaxe izan da: Irailaren 27an itxi zuen atea, 85 urteko ibilbideari amaiera emanez. Muruamendiaraz gozotegiko pastelak, bonbak, tartak eta izozkiak ezagunak eta preziatuak ziren Elgoibarren, bai eta inguruko herrietan ere, baina estimazio hori ez da nahikoa izan enpresari jarraibidea emateko. Muruamendiaraz familiako kideak jubilatuta egin dira, eta saiatu diren arren, ez dute erreleboa hartuko duen inor aurkitu. Ibilbide gozoa eta oparoa izan da Muruamendiaraz gozotegiarena, baina momentuz bukatu dira Sigmako industrigunean gozo usainak eta usain goxoak. Gazia da hala amaitzea, baina Muruamendiarazek eman du azken gozoa.**

- AINHOA ANDONEGI -



*Atzean, Pilar, Juani eta Mertxe. Aurrean, Jose Mari eta Isabel. Zortzi neba-arrebetatik bizirik dauden muruamendiaraztarrek.*

Maria Baztarrika eta Jose Ramon Muruamendiarazek sortu zuten gozotegia 1935ean, gerra aurreko urtean hain justu ere. Elosutik etorri zen bikotea Elgoibarrera, eta San Frantzisko kalean zabaldu zuten denda, gaur egun Rural Kutxa dagoen lekolean. Janari denda zabaldu zuten, baina Jose Ramon gozogilea zen, eta obradore txiki bat jarri zuen lokalaren atzeko aldean, pastelak egiteko. Garai hartan ezinezkoa zen pastelak saltzetik bizimodua egitea, eta gainerako jakiak ziren dendaren oinarria. "Asteburuetan eta egun seinalatuetan bai, baina bestela jendeak ez zituen pastelak erosten", esan dute Juani, Mertxe eta Pilar Muruamendiaraz ahizpek. "Luxua zen garai hartan pastelak erostea, eta askok isilpean erosten zituzten". Zortzi seme-alaba izan zituzten Jose Ramonek eta Mariak: Isabel, Pilar, Mari Tere+, Jose Mari, Juani, Luis Mari+, Mertxe eta Ramon+. Lehenengo laurak San Frantzisko kaleko lokal horretan bertan bizi izan ziren, etxea ere bertan zuten-eta. 1943an lekualdatu ziren San Bartolome kalera, eta oraindik ere lokal berean batu zituzten gozotegia eta janari denda. 1963an bereiztu zituzten pastelak eta ohiko jakiak, bi lokaletan, eta 1986an, gozotegiak hartu zuen lokaletako bat bere osotasunean eta bestean jarri zuten obradorea. Azken aldaketa 2006an egin zuten: obradorea Sigmako industrialdeko lokal batean kokatu zuten, inbertsio handia eginda.

"Obradore berria jarri genuen, makina berri eta modernoekin, etorkizunean pentsatzen". Inbertsio horrek produkzioa handitzea ahalbidetu zuen, eta ondorioz Muruamendiarazeko produktuk Elgoibartik kanpora saltzea ere bai. Debagoieneko ia herri guztietara saltzen hasi ziren, eta Debabarrenean ere leku askotara saltzen zituzten pastelak. Hala ere, ez da nahikoa izan gozotegiak aurrera egiteko.

## MENDEA BETETZEKO GERTU

Familia negoziarioa izan da Muruamendiaraz. Jose Ramon aitarren lekua hartu zuen Jose Mari obradorean, zortzi neba-arreben artean laugarrena zenak. Aitarengandik ikasi zuen ofizioa, eta urteetan egon zen obradoreko arduradun, 54 urterekin gaixotu zen arte. Juanjo Bastarrika Txutxo lehengusuak hartu zuen haren lekua 1973an, 16 urterekin. 44 urte egin ditu Txutxok obradorean, harik eta 2018an, 61 urte beteta, jubilazio partziala hartu zuen arte, errelebo kontratua sinatuta. Erretiroa hartu aurretik hasi zen ordezkotza bila, bai etxe barruan zein kanpoan, baina inor ez zen agertu obradorearen ardura hartzeko prest. Iloba batek ostalaritza eta gozogintza alorreko ikasketak egin zituen eta harengan zeukaten jarria itxaropena. Urte batzuk egin zituen iloba horrek obradorean lanean, baina hark ere beste bide bat hartu zuen.

Jesus Ezenarro 2015ean jubilatzen zen, eta Josetxo Etxeberria eta Juanjo Bastarrika 2017an eta 2018an partzialki jubilatzen baziren ere, oraindik enpresako langile izatera mantentzen zuten, eta Juanjo bera azken-azkenera arte aritu da obradoreko lanetan. Enpresako administradore lanak ere Jon Lizarralde egiten zituen, Juani Muruamendiarazzen semeak. Bere lan jarduna amaitu ondoren helitzen zion Lizarraldeko gozotegiko administratzaioari. Eta aurrerantzean ere oraindik laguntzeko prest zeuden bai Juanjo eta baita Jon bera ere, baina negozioa bera beste batzuen esku utzita, eta hori ez dute lortu. "Saiatu gara egungo lantaldeak harrezan obradorea, eta oso baldintza onak eskaini dizkiogu gainera". Horren trukean familiak, baina, baldintza bat jarri zien: "Gozotegiak aurrera egitea, betiko filosofiarekin, betiko produktu artisaua eta primerako zerbitzua ematen". Langileek ez zuten aurrera egin.

Dendan orain dela hiru bat urte hartu zuten erreleboa Maria eta Carol Boyer ahizpek. Denda traspasoa hartu zuten, baina euren ardurakoa ez zen arazo administratibo baten ondorioz, bost hilabetera berriro ere itzuli behar izan zieten dendaren jabetza muruamendiaraztarrei. Maria eta Carol kontratupeko langile izatera pasatu ziren, Isabel Gonzalezekin batera. Aurrera jarraitzeko prest zeuden, baina dendak obradorek gabe ezin zuten aurrera egin.

Gozotegiaren ibilbidea borobiltze aldera, 100 urte bete zeko ilusioa zuten muruamendiaraztarrek, baina ez dira iritsi. Hartzekodunen lehiaketan sartu ziren lehenik, eta dagoeneko enpresa likidazio fasean dago. Muruamendiaraztarren ibilbidea Muruamendiaraz gozotegian amaitu da. Aurrerantzean zer gertatuko den ez dakite. Posible da interesdunen bat agertzea eta berriz gozotegia martxan jartzea, baina argi utzi du Lizarraldeko, hori ez dagoela beraien esku.

## URTE GOZOAK

Muruamendiarazek urte gozoak bizi izan ditu, eta Juani, Merte, eta Pilarrek oroitzapen onak baino hobeak gordetzen dituzte. Aitortu dute, baina "lan handia" egin dutela: "Gozotegiko lana polita da, baina gogorra. Zenbat eta festa gehiago egon, orduan eta lan gehiago dago gozotegian. Guk ez dugu besterik ezagutu eta ordu denak eskaini dizkiogu gozotegiari. Gurea zelako, gurea sentitzen guelako, baina gaur egun lan baldintza horietan lan egiteko prest dagoen jendea aurkitzea ez da erraza".

Festa eta jai egunak izaten ziren gozotegian lan gehien izaten zuten egunak, Gabonak eta sanbartolomeak, bereziki, eta egun horietan senide guztiek lan egiten zuten gozotegian. Bazkaldu ere bertan egiten zuten seme-alaba eta biloba guztiekin, obradorea Sigmara lekuvaldatu zuten arte. Hiru belaunaldi batzen ziren, 25 bat kide guztira. Arroza eta oilaskoa izaten zen menua, eta bi txandatan bazkaltzen zuten. "Berezia izaten zen". Une berezien

## Festa eta jai egunak izaten ziren gozotegian lan handieneko egunak, Gabonak eta sanbartolomeak bereziki

artean bada betirako gogoan iltzatuta geratuko zaien beste bat: Mauxitxa txarangak Txiki Egunez urtero gozotegi aurrean egiten zuten geldialdia. Beste arrazoi batengatik bada ere, Errege Eguneko bezpera eguna ere berezia izaten zen muruamendiaraztarrenean: "Errege opilarekin bizi izan duguna sinestezina izan da. Egun horietan

familia guztia aritzen ginen lanean, bai gu eta baita gure ondorengoak ere". Ahizpak goizean goizetik joaten ziren obradorea errege opilak erdibitu eta kremaz edo nataz betetzera, paketeak egitera, produktuak dendara eramatera eta euren seme-alabak ere laguntzen zieten opilak banatzen. "Inork ez daki zenbat ordu sartu ditugun guk denok gozotegian!". Esan dute gaur egungo gazteek nahiago dutela beste edozein lanetan jardun: "Ordutegia gogorra da, jai egunetan beti lanera... Gaur egungo gazteek ez dute hori nahi".

## AMAIERA GARRATZA

Triste daude muruamendiaraztarrek. Sekula ez zuten gozotegiaren amaiera irudikatzen; ez zuten irudikatu nahi. "Guk segitzea nahi genuen", irten zaie bihotz-bihotzetik, "baina ezin izan da". Jaio zirenetik ezagutu dute gozotegia, eta beraien etxeetan pasatelek leku garrantzitsua hartzen zuten. Beraien etxea zen gozotegia, bai lanerako eta baita gozamenerako ere. Hantxe gozaten ziren, eta "pena handia" hartu dute ixtean. Azken hilabetean obradorean "egoera zaila" bizi izan zuten, eta herritarrengandik



75. urteurrenean ateratako argazkiak. Goian, dendako lantaldea eta behean, obradorekoa.

entzuten zutena ere ez zen euren gustukoa. Jakitun ziren modu horretan ezin zela aurrera egin: "Kalean esaten ziguten pastelak ez zirela lehengoak, eta guk geuk ere nabaritu genuen hori". Horrez gain, gozoak erosteko eta ospakizunak egiteko ohiturak ere aldatu egin direla uste dute, eta lehen dozena eta erdi pastel erosten zituzten askok orain dozena erdi erosten dutela: "Lehen, urtebetetze egunean bertan ohitura zegoen dozena bat pastel bidaltzekoa senideei, baina ohitura hori galduta dago". Horrez gain, gaur egun jendeak azukre gutxiago jaten duela uste dute: "Azukrearen kontra esaten ari diren guztiarekin jendeak birritan pentsatzen du pastelak erosi aurretik". Juanjo Bastarririk ere halaxe azaldu du: "2000. urte inguruan kontsumoan aldaketa nabaritu genuen. Familiak gero eta txikiagoak dira; bataio, jaunartze eta ezkontzak gutxitzen hasi dira; ospakizunak etxetik kanpo egiten ditu jendeak; eta jatetxeek euren postreak egiten dituzte. Horri gehitu behar zaio jendeak kirola egiteko eta gorputza zaintzeko joerak indar handia hartu duela". 2008ko krisialdiak ere min egin ziela nabarmendu du, baina bereziki, "familiarren erretiroa" izan da bere ustez negoziaren gainbeheran eragin handiena izan duen faktorea. "Gozotegi artisau gehienetan gertatu den bezala, gurean ere, familiak erretiroa hartu duenean etorri dira zailtasunak". Gozogile artisauen lana "exigentea" dela esan du Txutxok, baina berarentzat "bokazio" bihurtu zela aitortu du, eta baita bere emazte Maribelentzat ere. Mertxe izan zen dendatik erretiroa hartu zuen azken muruamendiaraztarra, eta haren lekua hartu zuen Maribel Prolek. Aurrez denda lagata bazuen ere, azken egunean denda atarian sortu ziren jende ilarak ikusita, lanean aritu zen. Juanjok eskerrak eman dizkie familiakoei berarengan jarri duten konfiantzagatik, eta bereziki, Jon Lizarralderi, "aitxitxa-amamak duela 85 urte martxan jarri zuten gozotegiak zutik jarrai zezan azken minutura arte egindako ahaleginagatik". Muruamendiaraz familiak ere esker oneko hitzak eskaini dizkie bikoteari, eta urteetan egin duten lana goraiatu du. Eta, oro har, elgoibartarrei eman dizkiete eskerrak, urte hauetan guztietan eman dieten babesagatik.

Denda txikien itxiera guztiak dira tristeak, denda bat ixteak argi bat itzaltzen duelako kalean, baina 85 urteko historia duen denda bat ixtea are eta tristeagoa da, eta elgoibartarrei kostatzen egongo zaie Muruamendiaraz gozotegirik gabeko herria irudikatzea.



Une berezia izan ohi zen Mauxitxa txarangak Txiki Egunez gozotegi aurrean egin ohi zuen geldialdia.



Isabel Gonzalez, Carol eta Maria Boyer.

## Itxieraren aurpegia, barra atzetik

Maria eta Carol Boyer ahizpak Skandalo dendarekin lotuko dituzte askok, baina azken urteak Muruamendiaraz gozotegiko mostradore atzean egin dituzte. Orain dela bost bat urte itxi zuten Skandalo mertzeria, eta bi ahizpak Eroskin hasi ziren lanean. Duela hiru urte Muruamendiaraz hartzeko aukera suertatu zitzairen eta ilusioz heldu zioten. Etapa berria hasi zuten, eta Mariak berak bere jubilazioa ere Muruamendiaraz irudikatu zuen. Denda traspasoan hartu zuten, baina bost hilabetera arazo bat suertatu zitzairen muruamendiaraztarrei, eta dendaren jabetza itzuli behar izan zieten. Dendan lanean jarraitu zuten bi ahizpek Isabel Gonzalezekin batera, kontratupean. "Gustura ari ginen lanean, eta gure ustetan ondo saltzen genuen, baina negozioa ez zihoan ondo". Aurtengo urte hasieran jakinarazi zieten enpresa "egoera larrian" zegoela, eta irailean iritsi zen azkena. Irailaren 27a egun berezia izan zen beraientzat. San Bartolome kalean sekulako jende ilarak sortu ziren, asko eta asko izan zirelako Muruamendiarazeko azken gozoak erosi nahi izan zituztenak: "Lan handia izan genuen egun horretan, eta azken eguna zela pentsatzeko astirik ere ia ez genuen eduki". Pare bat aste pasatu dira ordutik, eta orain, hotzean pentsatzen jarri direnean, sortu zaizkie tristurak: "Triste gaude, arrazoi askorengatik. Batetik, lanik gabe geratu garelako eta orain daukagun adinarekin lana bilatzea ez delako erraza. Bestetik, ilusio handia geneukalako jarrita gozotegian, eta bat-batean amets guztiak zapuztu zaizkigulako". Zaila egingo zaie beraiei ere Muruamendiaraz gabeko Elgoibar irudikatzea, izan ere, "bizi osoan" ezagutu dute gozotegi hori. Hala ere, ez dute guztiz etsi eta itxaropenerako zirrikitu bat badute, zaila den arren: "Agertuko balitz norbait obradorea hartzeko prest, guk dendarekin jarraituko genuke, beti ere, haiek gurekin jarraitu nahiko balute, jakina". Beraien kabuz denda berriz zabaltea ere pentsatu dute, baina arazoa pastelak lortzea da: "Gozotegi artisau gutxi dago, eta zaila da pastelak Elgoibarrera ekarriko lituzkeen norbait aurkitzea. Gainera, elgoibartarrek Muruamendiarazeko pastelak nahi dituzte, ez bestelakoak".



*85 urte hauetan jaso dugun babes  
eta errekonozimendua ez ditugu inoiz ahaztuko.  
Mila esker guztioi!*



# Ikarrekin ekin diogu bideari

Elgoibarko euskalgintza eta kulturagintza biziberritzeko lehen ahalegin kolektiboa izan dira aurtengo 'Euskara ala ezkara' jardunaldiak. 2008az geroztik, Gotzon Garate zenaren oroimenez prestatu eta antolatu ohi dituzte jardunaldiak Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak elkarlanean. Aurtun, ia bezala, Dijitalitatea enpresak ere parte hartu du antolakuntzan eta IMH eta Makina Erremintaren Museoren laguntza ere izan dute, bai eta Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren babesa ere. Berezia izan da aurtengoa, hala ere. Batetik, COVID-19aren pandemiaren eraginez neurri zorrotzak hartuta egin behar izan zirelako jardunaldiak, eta bestetik, elgoibartarrek aurrekoetan baino kopuru handiagoan parte hartu dutelako aurtun. Izan ere, aurtun, herrikoak zeuden deituta. Elgoibarren euskalgintzan eta kulturagintzan diharduten adin eta pentsaera askotariko 52 lagun batu ziren guztira zapatuan IMHn. Talde txikitik jardun ziren lanean goiz eta arratsalde: goizean, herriko euskalgintzaren eta kulturagintzaren egoeraren diagnostia bateratzen eta adosten, eta arratsaldean, kulturarentzat Elgoibarren nahiko luketen markoa irudikatzen. Lehen pausoa eman zuten, eta ibilian jarraitzeko konpromisoa hartu ere bai.

- AINARA ARGOTIA -

Zer egingo dugu euskarak eta kulturak aurrerapen nabarmenak egin ditzaten Elgoibarren hurrengo urteetan?. Ez da galdera erraza, ez da egiteko samurra, baina ahaleginak merezi duelakoan abiatu ziren Elgoibarko Izarra eta Elgoibarko Udala lan-prozesu honetan duela bi urte, hein batean Dijitalitatea enpresako Gotzon Barandiaran idazle eta kulturagileak (Larrabetzu, 1974) proposatuta. Harreman estua izan du azkeneko urteotan Barandiaranek Elgoibarrekin. Elgoibarko euskararen ondarea biltzen duen *Elgoibarreraz.eus* atari digitalaren sortzailea da, bai eta *Euskaraalaezkara.eus* atariarena ere, izen bereko ekimenean pilotatu den pentsamendua jaso, bildu eta gizarteratzeko asmoz sortutako atariarena. Eta berak eman zion zapatukoari hasiera ere, Maialen Gurrutxaga Udaleko Euskara zinegotziaren eta Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentearen atarikoaren ondoren.

Lehen bultzada izan zen Barandiaran lan-prozesu honetan, eta berak proposatuta etorri da Elgoibarrera 30 bat urtean Susako editore izan den Gorka Arrese (Zarautz, 1965), lehenengo gida dokumentua idaztera: kuaderno zuria. Elgoibarko euskalgintzaren eta kulturagintzaren sistema osatzen duten eragileak elkarrizketatu

ditu Arresek eta kuaderno zurian bildu ditu erantzun guztiak: 1.900. Liburu Zuria izango denaren abiapuntua da kuaderno zuria, eta hasieran formulatutako galderari erantzun ahal izateko erreminta izango da Liburu Zuria. Hiru gauzatarako izan nahi du lagungarri: egindakoak analizatzeko eta deskribatzeko; ahalmenez eta ahultasunez kontzientzia hartzeko, eta egoki antolatzeko eta asmoak proiektatzeko.

Lan prozesu honen nondik norakoak aletu zituzten Arresek eta Barandiaranek zapatuan eta azpeitiarrak ere gonbidatu zituzten IMHra, Azpeitiko Kultur Mahaiaren eta haren egiteko moduaren berri ematera. "Emaitza ona ematen ari den eredia da Azpeitiko; eurei funtzionatzen diena eta gehiago zabalzea merezi duena", arazoitu zuen Barandiaranek.

## Hizkuntza eta kultura: bat ezin da bestea gabe

"Ekosistema bereko organismoak dira kultura eta hizkuntza, bat ezin da bestea gabe", jaso du Gorka Arresek kuaderno zurian hitzurrean: "Guri iruditzen zaigu euskararen erabilera ez dela zabalduko, kulturaren praktika bizkortzen ez bada erreka



ur freskoa bezala. Aldi berean, kulturgintzak ez du osasuntsu irauteko aukerarik izango, baldin eta euskarari ematen ez badizkiogu behar dituen argia eta indarra”. Hor abiapuntua, lehen premisa; hor marko teoriko bat. Eta horri lotuta, bi ohartarazpen, Barandiaranen ahotan. Bat: “Euskaldunok ez dugu astirik hartzen zer egin dugun aztertzeke. Etengabe ari gara egiten, baina ekin behar horrek askotan eragozten digu atzera begiratzea eta ez dugu astirik hartzen elkarrekin zer egin dugun ikusteko, ez eta horrenbeste lan egin ondoren gure ametsak zergatik ez diren gauzatu aztertzeke ere”. Eta bi: “Euskaldunok ez dugu ezagutzen gure ondarea. Gure kulturari eta gure hizkuntzari bizkarra emanda bizi gara”. Jalgi egitasmoak adostutako diagnosiko puntu nagusiak dira Barandiaranek gogora ekarri zituenak. Aiaraldea Komunikazio Leihokak, Ahotseneak, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartek, Bertsozale Elkartek eta Euskaltzaleen Topaguneak sortu zuten Jalgi euskal kulturaren plaza 2016an eta hark egindako diagnosi hartatik ateratako ondorioa gogora ekarri zuen Barandiaranek zapatuan: euskal kulturgintzaren berariazko erronka kulturzaleak sortzea izan behar dela, “ez daukagulako kultur zale nahikorik euskal kulturaren ekosistema osasuntsu mantentzeko”.

Euskal kulturgintzaren sistema eragile ugariaren multzo artikulatuak osatzen duela nabarmendu zuen, eta kulturaren sistema biziko bada, sare horretan parte hartzen duten guztien beharra dagoela azpimarratu. “Behar ditugu sortzaileak, antolatzaileak, hezitzaileak, kudeatzaileak, logistikako eta lan teknikoetako profesionalak, industriak, komertzioak, euskal kultura lantzen duten kazetariak eta hedabideak, eta etxean nahiz hezkuntza arautuan transmisioa bermatuko duten euskaltzaleak... behar ditugu kultur zaleak. Behar ditugu zale aktiboak, eta baita ere kulturarekiko herritar pasiboak direnak”. Sistema egoki bizi dadin, lau alor zaindu behar direla zehaztu zuen: sormena, plazak (fisikoak zein birtuak), komunikazioa eta transmisioa. Hau da, batetik, pertsonaren garapen integralerako modu sistematikoan landu beharko litzatekeela sormena, bestetik plazak gehiago zaindu behar direla, Eus-

kal Herriko plaza fisiko zein birtuak gehiena erdaretan dagoelako, eta hirugarrenik, komunikazioa eta transmisioa indartu behar ditugula ezinbestean, “sekulako arazoa daukagulako sortzen duguna herrikideei helarazteko eta transmisioan etena izan dugulako, bi belaunalditako etena”.

Eta gogoetarako, lau ikerketak plazaratutako ondorio kezkarriak aitatu zituen.

- Soziolinguistika klusterrak eskola-giroko hizkuntza-erabilerak neurtzeko egin ohi duen Arrue proiektuaren emaitza, zeinak erakusten duen 16 urte bitarteko gazteek oso atxikimendu txikia dutela kulturarekiko eta dutena ez dela, bistan da, euskarazko kulturarekikoa.

- Euskal kulturaren kontsumoaz Siadecok eta Elkarrek osatutako ikerketarena, zeinak erakutsi zuen euskaldun gehienek ez dutela euskarazko kultur edukietara jotzen (lau euskaldunetik batek bakarrik jotzen du).

- Mintzola Ahozko Lantegiak eta Udako Euskal Unibertsitateak iaz ahozko kultur sorkuntzaren harira antolatutako udako ikastaroetan izan ziren hiru irakasleek euren tesietan jasotako ondorio nagusia: ahozkotasunean izugarriko arazoak dituztela ikasleek euren ideia eta sentimenduak nahiko litzuketen moduan adierazteko, eta beraz, ezinbestekoa dela ahozkotasunari zentralitatea ematea hezkuntzan, horrek eragin zuzena duelako gero gazte horiek egingo duten hizkuntza hautuan.

- EAEko Eskola Kontseiluak joan zen astean argitaratutako txostena, zeinean esaten duten Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan etengabeko hazkundean dagoela D ereduak, baina ez duela lortzen haurrak guztiz euskalduntzea. Are, euskarazko hizkuntza gaitasunak behera egin duela diote datuek eta LHko ikasleen %37k eta DBHko %46k «maila baxua» dutela. Horregatik, D ereduari buruzko “azterketa sakona” egiteko eskatu dute.

Euskara normalizatzen ez bada, bere kulturak ere nekez iraungo duela ohartarazi zuen Barandiaranek eta euskaldun izatearen kontzientziak aritzeari “premia-premiazkoa” iritzi zion. “Gure marko teorikoa, eta zuena, behintzat *Euskara ala ezkara* jardunaldiak antolatu izan dituzuenona, hori da: euskara eta kultura ekosistema bereko organismoak direla, eta beraz, aritu behar garela euskaldun izatearen kontzientziak, kulturgintzaren bitartez. Hain zuzen ere, horretan jardun zarete Elgoibarren urteetan: euskaldun izatearen kontzientzia lantzen, ezagutzaren eta pentsamenduen bitartez lehenengo eta kulturgintzaren bitartez gero”. Eta hori esanda, bi galdera pertinente, bi galdera deserroso, egin zituen: “Baina hori dena eginda ere, gaur, euskaltzale eta kulturzale gehiago zarete Elgoibarren? Eta zaretenok nahikoa zarete euskararen erabilerak eta kulturgintzarekiko atxikimenduak gora egin dezan herri honetan?”.

Horri erantzuteko proposatu dute Gotzon Barandiaranek eta Gorka Arrresek Liburu Zuria proiektua, eta egitasmo kolektibo horren lehenengo urratsa da zapatuan Arresek aurkeztu zuen Elgoibarko Euskalgintzaren eta Kulturgintzaren Egoeraren Diagnostikaren harira egin zena.

## Kuaderno zuria, euskalgintza eta kulturgintza artikulatzeko bidean lehen urratsa

Hizkuntza, kultura eta herria lehen lerroa ekartzeaz jardun zen Gotzon Barandiaran eta erreferentzia zuzena egin zion joan zen astean itxi zuten Durangoko Plateruena kafe antzokiari. «Plateruena ahalduz saio ikaragarria izan da», esan zuten Beñat Gaztelurrutiak *Berría* egunkariari emandako titularra bere eginez. Eta hain justu ere, hizkuntza, kultura eta herria lehen lerroa ekarri nahi horretan, gabezi handi bat identifikatu du Gorka Arresek Elgoibarren, herriko eragileei egindako galdeketetan jasotako erantzunetan. “Lehen inpresioa izan da sortzaileek, erakundeek eta orobat herriko egituretan lan egiten duen jendeak ez duela bata bestearen berri. Asko zarete euskararen eta kulturaren praktikan Elgoibarren zabilztenak, baina mapa bat egitea falta zaizue, elkar ezagutzeko”. Zenbait gauzek harritu egin dutela ere aitortu zuen, eta bat azpimarratu zuen: Elgoibarren, musikaren eta dantzaren espresioak direla jendetsuenak, nolabait esatearren euskararik gabeak diren jarduerak. “Literaturaren, antzerkiaren eta bertsoaren praktikak minorizatuak dira hemen, eta horregatik, horiek minorizatuak direlako Elgoibarko Izarra eta *BARREN* herri aldizkaria bihurtu dira kohesio tresna nagusiak euskaltzaleen artean”, zehaztu zuen. Eta horren harira euskara eta kultura sinkronizatzeko premia “urgentea” dela esan zuen: “Ez genuke utzi beharko ekonomia egoera hobea denerako; ez genuke utzi beharko auskalo zer daukagunerako; ez genuke utzi beharko gerorako. Kultura da gainerako izakietatik bereizten gaituena eta euskarak egiten gaitu bereziak munduan, euskarak bakarrik”.



Gorka Arrese eta Gotzon Barandiaran, zapatuan, IMHn.

Behaketa eta galdeketa lanak egin ditu Arresek. Udaberrian, herriko hainbat elkarteren egoitzak eta biltokiak bisitatu zituen, eta aldi berean, martxoaren 19tik ekainaren 24ra bitartean, Elgoibarko euskalgintzako eta kulturgintzako 38 eragile galdekatu zituen: 28 erakunde eta 10 norbanako. “Elgoibar osoa epe laburrean analizatu ezin denez, kalitate bereziko zati bat deskribatzea erabaki nuen”, zehaztu zuen. Eta galdetu zien nortasunaz; galdetu zien egiten zutenaz, jardueraz; galdetu zien baita ere zituzten baliabideez eta tresnez, eta azkenik, baita, sentipenez eta pentsamenduaz ere. 1.900 erantzun jaso zituen koaderno zurian. Elgoibarko kulturgintzaren deskripzio halako bat da kuaderno zuria, eragileen ahalmenak eta ahultasunak erakusten dituen, bai eta kolokan jartzen dituen arriskuak eta ibili nahiko luketen bidea (aukerak) seinalatzen dituen ere. Argi laga zuen koaderno zuria ez dela kuaderno itxi bat. “Orain erabilgarria izateaz gainera, osagarria eta emendagarria da aurrerantzean ere (nahi izatera). Prest dago ahots gehiago aintzat hartzeko”. Eta “sekretu bat” ere haizatu zuen kuaderno zuriaren aurkezpena egiten ari zela. “Lan hau egitera Elgoibarrera ekarri ninduen zer izan zen esango dizuet: Felix Etxeberria *Parapan* izan dut beti gogoan”. Hari eskaini zizkion kuaderno eta zapatuko hitzaldia.

38 elkarrizketak egin ostean, ondorio eta proposamen batzuk ere eskaini ditu, baina, Arresek, kuadernoan. Honatx:

### ONDORIOAK

1. Euskalgintzako eta kulturgintzako elkarteek, taldeek, egiturek eta eragileek ez dute elkar ondo ezagutzen, edo gutxi gora-behera bakarrik. Ez dago organorik elkarren arteko komunikazioa errazteko edo laguntzeko, ez eta bilgune bat ere, maiztasun finkoz talde eta eragile ezberdinak elkartzeko.
2. Euskalgintzan, Elgoibarko Izarra da erreferente garrantzitsuena galdekatutako ia gehienentzat. Onespina dauka. Kulturaren arloan, baina, ez dago maila horretako izarririk.
3. Gazteek ez dute beraien lekua topatzen kulturaren praktikan, ez dago garbi zein eskaintza gustatuko litzaikeen adierazteko modurik duten. Ezinbestekoa da belaunaldiartekotasuna lan-

tzea ahalik eta lasterren, eta aldi berean, euskararentzat eta kulturarentzat funtsezkoa da gazteria eragile aktibo gisa hartzea kulturgintzaren ekosisteman.

4. Garai berriak dira, eta horren kontzientzia badaukagunez, kulturaren arloek eta teknologiaren sektoreek elkar hartuta, aro honen aukerak eta arriskuak neurtzeko orduan ez gara despistatu behar.
5. Gizonezkoen izenak dauzkate kulturaren lekuek Elgoibarren, baina, gaur egun emakumezkoak gehiago dira herriko euskararen eta kulturaren praktikan.
6. Pertsona batzuek 30 urte inguru edo gehiago dihardute la-





nean herrian konpromiso handiz, baina berrikuntza faseak azkartu egin beharko dira laster, eta herriko egitura, elkarte eta zerbitzu askotan, lanen, harremanen, tratuen, lorpenen eta helburuen transmisioa egin beharko zaie arduradun, taldekide eta langile berriei.

**7.** Sinergia behar da kulturaren eta industriaren artean. Kulturarik ez da jakintzarik eta tekninarik gabe. Batera datoz. Maila teknologiko nabarmenera iritsi da Elgoibarko tradizio industrialra, eta aintzatetsia da Euskal Herrian eta munduan. Garpeneko teknologiko moderno horrek aurrerantzean lagundu egin behar luke euskara eta kultura goren gradura gidatzen.

**8.** Duela 50 urte baino presentzia askoz handiagoa du euskarak herrian, eta ez da perspektiba galtzerik komeni. Autokritika ere egin dute, baina, eragileek: desoreka, konpromiso falta, kontzientzia falta, ikerketa falta, ekintzen eta egitasmoen ebaluazioa hobetzeko premia...

**9.** Euskara eta kultura lehen lerrora ekarri behar dira, euskarak eta kulturak egiten gaituztelako berezi eta bakar munduan.

**10.** Eragile batek, berak bakarrik, ez du lortuko Elgoibarren euskararen eta bere kulturaren normalizazioa. Batek bakarrik ez du lortuko euskararen erabilera handitzea edo kulturazale gehiago inguratzea. Askotarikoa izan behar du kulturaren egitarauak, baldin eta Elgoibarko jendarte osoak programatutako ekitaldiekin gozatuko badu. Egitarau guztiz adostuak ezin dira



diseinatu, hala ere. Nork bere autonomia ez du galdu behar, baina eragileen eta herritarren interesen arteko adostasun maila bat lortu behar da.

**11.** Denbora falta dugula uste dugu sarri, baina denbora, berez, ez da falta izaten den tresna bat. Gertatu ohi zaiguna da, asmoak, konpromisoak, proiektuak, enkarguak, helburuak betetzeko nahikoa baliabide eta laguntza ez dugula izaten sarri. Ez dugu denbora falta, norbaitek laguntzea baizik.

**12.** Nork bere premiak eta helburuak ditu. Beti ez dira betetzen, baina ez dugu sekula pentsatu behar ametsak ez direla egingarriak edo lortu ezinezkoak.

## PROPOSAMENAK

**1.** Sistema moduko bat eratu beharko litzateke, euskalgintzaren eta kulturagintza osoa artikulatzeko, sakabanatuta ez segitzeko.

**2.** Kulturaren mapa "ikusgarri eta praktikoa" bat egin behar litzateke lehenbailehen, jakin dezagun non gauden, elkar eza-gutu dezagun xehetasunez, kontzientzia har dezagun zein diren bakoitzaren ahalmenak, artikulatu eta optimizatu ditzagun ahaleginak denon artean.

**3.** 'Kultura' hitzak ez du gauza bera adierazten denontzat eta aberastasun ezaugarria da kulturari buruz ditugun kontzeptuak askotarikoak izatea. Horregatik mesedegarria da euskararen eta kulturaren komunitatean debatea egotea. Iritzi diferentek jokoan sartzeak sustatu beharko litzuzke dialogoa, elkarri entzutea, konplizitate giroa, kooperazio aukerak...

**4.** Zubigilearen figura sortu beharko genuke, batzuk besteekin konexioan eta tratuan jartzeko, batzuen eta besteen premiak eta ezintasunak konpontzen laguntzeko.

**5.** Kulturak herrian zein aktibitate eta bilakera izan dituen kontatu beharko genuke; batzuek besteen berri jakiteko, egindako lanaren balioaz kontzientzia hartzeko, hurrengo belaunaldiak ideia izan dezan nola proiektatu etorkizuna.



**6.** Interneten, euskarak eta bere kulturak partekatzen dituen edukiak ez dira sekula nahikoa izango erdaretan jasotzen ditugunen artean eta horregatik plaza digitalak indartu behar ditugu. Herriko kulturagintzaren historiari buruzko edukiak zein egungo sormen berriari lotutakoak jaso, bildu eta sozializatzeko epe luze-erako estrategia adostu behar da.

## Hamabi ondorio laura ekarrita



Elgoibarko euskalgintzaren eta kulturgintzaren lehen argazki bat egin du Gorka Arresek kuaderno zurian, eta protagonistak elgoibartarrak dira irudi horretan, haiena da hitza. Zapatuko saioaren helburu nagusia ere horixe izan zen: euskararen eta kulturaren praktikan diharduten eragileak elkarren artean harremanetan jartzea, denen artean euskalgintzaren eta kulturgintzaren egoeraren diagnostia bateratzeko eta adosteko. 52 lagun elkartziren guztira, baina zazpi talde txikitik jardun ziren lanean; batetik, lanerako emankorragoa izan ohi delako sistema hori, eta bestetik, koronabirusa dela-eta segurtasun neurri guztiak hartzea zegokielako antolatzaileei. Luze solastu ziren taldeetan kuaderno zurian jasotako ondorioez. Rita Aldabaldetrek Topaguneko kideak izan zuen lan-sistema dinamizatzeko ardura eta hark agindu zien hamabi ondorioak laura ekartzeko. Eta hala egin zuten goizeko saioan. Honako lau ondorio hauek lehenetsi zituzten.

1. Euskalgintzako eta kulturgintzako elkarteek, taldeek, egiturek eta eragileek ez dute elkar ondo ezagutzen. Ez dago organorik elkarren arteko komunikazioa errazteko edo laguntzeko.
2. Sortzaile asko dago, ekintzaile asko, eta horiek saretu beharra dago. Elgoibarren, kulturaren arloan ez dago izarrik.
3. Euskara eta kultura lehen lerrora ekarri beharra dago.
4. 'Zein ote dira gazteen desirak?' galderari erantzun behar zaio eta garai berrietara egokitu.

Kulturarentzat Elgoibarren nahiko luketen markoa irudikatzen lehen ahalegin kolektiboa izan zen zapatukoa, baina ez azkena, hurrengo urratsa zein izango den edo zapatukoari segida nola eman aztertzen jarraitzeko konpromisoa hartu zutelako guztiek iluntzean, kontzertura joan aurretik. Izan ere, zapatu batean kultura egarri diren horrenbeste euskaltzale elgoibartar batzen dituen dinamika bati ezin zitzaion azkena beste modu batean eman hainbeste sortzaile eta kulturgile dituen herrian. Jon Gurrutxaga herriko musikariak eta Urbil Artolak biribildu zuten zapatuko saioa, Makina Erremintaren Museoan eskaini zuten kontzertuarekin.



Zazpi taldeetan banatuta jardun ziren gogoetan IMHra batutako eragileak.



Askotariko jendeak parte hartu zuen taldeetan.



Kuaderno zuriko hamabi ondorioetatik lau lehenetsi zituzten eragileek.



Urbil Artola eta Jon Gurrutxagaren kontzertua Makina Erremintaren Museoan.



# Azpeitiko Kultur Mahaia: egiteko modu baten ikurra



**Euskalgintza eta kulturgintza biziberritzeko eredu bat da Azpeitiko Kultur Mahaiarena eta Eneritz Albizu Udaleko Kultura batzordeburuak eta Aitor Bengoetxea Kulturaz kultur kooperatibako proiektu arduradunak azaldu zuten zertan datzan.**

Azpeitiko Kultur Mahaia emaitza onak ematen ari da, eta ereduak zabaltzea merezi duelakoan, zer den eta haren egiteko modua zein den azaltzera ekarri zituzten antolaitzaileek Eneritz Albizu Azpeitiko Udaleko Kultura batzordeburua eta Aitor Bengoetxea Kulturaz Kultur Kooperatibako proiektu arduraduna Elgoibarrera. Baina gonbidatuek argi laga zuten eredu bat baino ez dela: “Ez dugu esango perfektua edo egokia denik, baina guri funtzionatu digu”, esan zuten Albizuk.

2006an sortu zuten Kultur Mahaia eta gerotik ezer ez da berdin Azpeitian. Aurrez, bazuten Uztarría Kultur Koordinakundea, herrian udal euskara teknikaririk, Udal Euskara Patronaturik, euskara elkarerik, euskararen normalizazio plan estrategikorik eta kultur etxerik ez zegoen garaian sortua, 1998an. Euskara, informazio-komunikazioa eta kultura zituen ardatz Uztarría Koordinakundea, baina “bide handiena” euskara eta komunikazioan egin zuten. 2008ko martxoan laga zion Uztarría kultur koordinakunde izateari, “helburuak beteta” [Uztarría Komunikazio Taldea da gerotik]. Izan ere, ordurako sortua zuten Azpeitian Kultur Mahaia. 2006an sortu zuten, eta mugarri bat izan zen Azpeitian euskararen eta kulturaren praktikan. Herriko 22 kultur elkartetik, hainbat norbanakok, Udaleko ordezkariak eta teknikoak osatzen dute gaur Kultur Mahaia, 380 bazkidek. Labur esanda, herriaren kultur norabidea markatzeko foroa da. “Kultur ekosistema zainetzea, aztertzea eta lan-ildoak zehaztea” da Kultur Mahaiaren egitekoa, eta parte-hartzean eta elkarlanean oinarritzen da haren egiteko modua, Aitor Bengoetxeak nabarmendu zuenez.

## Bat ez da besteak baino gehiago

“Egiteko modua irauli zuten Kultur Mahaiak Azpeitian. Administrazioa eta herria dikotomia hautsi genuen”. Udalaren ikuspegitik, Kultur Mahaia “bidelagun onena” dela esan zuten Albizuk. “Udaltetik garbi daukagu herritarrek, herriko eragileek, ezagutzen dutela ondoen herria; beraien ezagutzen dutela ondoen zein behar dituen herriko kultur ekosistemak eta haien ondoan bidea egitea dela gure lana. Espazioak eta baliabideak eskaintzea. Udala eragile bat gehiago da Kultur Mahaiaren”. Hala, Azpeitian azkeneko urteotan egin diren dinamika ia guztiak Kultur Mahaiak proposatuta egin direla zehaztu zuten, edo bestela haren ekar-

penekin ondu dituztela. Baina hori dena posible izan da Azpeitian, ezaugarri jakin batzuetako herrian. Herri euskalduna da Azpeitia, euskararen arnasgunea. Herritarren %83 euskaldunak dira (15.000 biztanle dira), eta euskararen erabilera %81ekoa da gaur. “Euskaraz bizitzea arau sozial moduko bat da Azpeitian eta kultura euskaraz ulertzen dugu”. Kultura ulertzeko modu hori dute. Markoa hori da: euskara eta kultura elkarrekin doaz. Izan zuten han ere garai bat, baina, ezaugarri horiek izan arren “ezer” ez zutena. “Aretorik ere ez geneukan. Oholtzarik ez. Hori izan zen Kultur Mahaiaren lehen kezka eta erronka, kulturarentzako espazioak lortzea. 2011n, Azpeitiko Kultur Mahaiak Sanagustin Kulturagunea Kooperatiba Elkarteak sortu eta Sanagustin kulturagunea kudeatzeari ekin zion. “Jauzi kualitatibo nabarmena eman zen orduan”. 2014an, berriz, Soreasu Antzokiaren kudeaketa hartu zuten bere gain kooperatibak, eta ate berriak zabandu zizkien hala herriko kultur eragileei. Kultura azpiegitura bat baino gehiago kultura bera osotasunean lantzen zuten eragile bat izanik, 2016an Sanagustin Kulturagunea Kooperatibak izen eta itxura berri bat hartu zuten, eta Kulturaz Azpeitiko Kultur Kooperatiba da gerotik. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da, izaera sozialduna, eta hiru lan-lerro dauzka: “Euskal kulturaren sustapena, kudeaketa eta eredu propioa eta herriarekin eta herriarentzat lan egitea”.

2017an jarri zuten hurrengo mugarria, Azpeitiko Udalak, Kultur Mahaiak eskatuta, Soreasu erakinaren zati batean sormen gunea espazioa egokitzeari ekin zionean. Dinamoa deitu zioten. “Sormenaz aritzeko gune bat da Dinamoa. Mugimendua indar eta indarra argi bihurtzeko tresna”. Eta gaur, udal eraikinak diren hiru espazio horiek [Sanagustin kulturagunea, Soreasu Antzokia eta Dinamoa sormen gunea] herriko eragileek eta herritarrek kudeatzen dituzte, Kultur Mahaiaren eta Kulturaz kooperatibaren bitartez. Orain, agertokiak, oholtzak eta bilguneak badituzte Azpeitian eta sormena sustatzeko ahaleginean, sortzaileentzako bekak ere indartu ditu Udalak. “Jabetu ginen sortzaileek bazituztela oholtzak eta guneak euren azkeneko lana aurkezteko, baina sormen lanerako behar zutela laguntza. Sormenari eman nahi genion balioa eta horregatik sormen-bekak indartzeko konpromisoa hartu du Udalak”, zehaztu zuten Albizuk.



Aitor Bengoetxea, Azpeitiko Kultur Mahaiko kideen argazkia atzean duela.



## ragileen ahotan

**Elgoibarrerako nahiko luketen kultur gintza eredu eta egiteko modua irudikatzen ahalegina egin zuten herriko 52 eragilek zapatuan. Talde txikitan jardun ziren hausnarrean, eta bukaeran, bateratze-lan bat egin zuten IMHko areto nagusian. Hona hemen, gogoeta saiora batutako zazpi laguni bazkalostean hartutako inpresioak.**

### ANE ASTIAZARAN

“Batez ere Elgoibarko euskalgintzaren eta kultur gintzaren arrimuan egiten diren ekitaldien, egitasmoen eta jarrerren inguruan ditugun ikuspegiak arduratzen navelako etorri naiz gaur hona. Eta ase nau hemen topatu dudanak. Batetik, iruditzen zait jende asko etorri dela gaur hona eta egia esan horrek harritu nau, jende gutxiago espero nuelako. Esperantza moduko bat igarri da hemen. Ardura bera konpartitzen dugun jende asko gaude, Elgoibarren euskalgintzaren eta kultur gintzaren alde zerbait egin nahi dugun lagun asko. Puntu ilun bat ikusten dut gaur hemen: orokorrean gazte-jende gutxi ikusten dudala. Pena hori badut. Gustatuko litzaidake honek jarraipena izatea eta *Euskara ala ezkara* jardunaldiak ez gelditzea urrian egin ohi diren jardunaldi hutsean, baizik eta bihurtzea urtean zehar ere gauzak egiteko erreminta. Behar dugun gogo edo motibazio hori sortzeko balio izatea”.



### GARAZI AYESTA



“Etorri naiz bereziki interesgarria iruditzen zaidalako jakitea Elgoibarko elkarte ezberdinak eta Elgoibarko Izarra bera zertan dabilzan, ohartarazi gaituztelako eta gu geu ere jabetu garelako gauza asko egiten ditugula Elgoibarren, baina egiaz, ez dakigula ondokoak, besteak, zertan dabilzan. Nik, gazte naizen aldetik, askotan bota dut faltan jakitea ni non nagoen, besteak zertan ari diren eta nik zer ekarpen egin dezakedan. Oso gustura egon naiz, egia esan. Aurten formatua aldatu dute: hasieran, hiru hitzaldi izan ditugu eta ondoren talde-etan jardun gara lanean, eta iruditzen zait formatu horrek gehiago inplikatzera behartzen gaituela, tailerretan interpelazio zuzen bat dagoelako nahi eta nahi ez. Jardunaldi hauetara etorri izan naizen beste askotan gertatu izan zait, hemendik irten, lagunekin konpartitu hemen entzundako gauza interesgarriak eta sentitzea hor gelditzen dela dena, ezerezean. Gaur hemen denon artean egin dugun hausnarketa hori oso interesgarria iruditu zait”.

### MAIALEN ASTIGARRAGA

“Konfinamendu aurretik elkarriketatu ninduen ni Gorka Arresek eta balio izan zidan parte hartzen dudana talde horren [Haritz Euskal Dantzari Taldea] historia apur bat gehiago ezagutzeko eta ni neu hor kokatzeko: jakiteko zertan ari naizen Haritzen, eta zertarako ari naizen. Eta interesgarria iruditu zitzaidan gaur hona etortzea, hori dena beste batzuekin konpartitzeko, eta aldi berean, entzuteko beste batzuk zertan ari diren, zein asmorekin ari diren eta zeintzuk sensazio dituzten. Interesgarria iruditzen zitzaidan gutako bakoitzak zer egin duen ikustea eta aurrera begira elkarrekin zer egin dezakegun aztertzea. Gure herriko kultur errealitatea ezagutzea, alegia. Nahi nuen nire aletxoak jartzea gaurko errealitate hori eraldatzeko. Pozik nago egunak eman duenarekin. Goizean, geure buruak apur bat kokatu ditugu hitzaldiak entzunez, eta gero, talde txikietan luze jardun gara hizketan. Nik uste dut balio izan duela gaurkoak. Leku ezberdinetako jendea batu gara hemen, nor bere motxila ekarri du, baina konturatu gara gauza batzuk berdin ikusten ditugula edo berdin egin nahiko genituzkeela, eta hori garrantzitsua da”.



**JULEN ANSOLA**

“*Txinok* [Imanol Larrañaga] deitu zidalako eta euskalgintzarekiko eta euskararekiko konpromiso bat erakusteagatik etorri naiz hona. Denon artean zertxobait egiteko gai baldin bagara eta guzti honetatik zer edo zer atera baldin badezakegu, ba askoz hobeto. Egia esan, espektatiba handiegirik gabe etorri naiz. Goiz partean hitzaldi batzuk izan ditugu, Gorka Arresek egindako lan guzti hori laburbiltzeko, eta gero, taldeetan batuta, Arresek bildutako ondorio handienak aztertzen jardun gara, Elgoibarko euskara eta kultura mailak indartzeko intentzioarekin. Arreseren hamabi ondorioetatik lau ondorio lehenetsi ditugu, eta isilik egotekoak ez garenez, haien inguruan solastu gara. Ideia batzuk irten dira taldeetan eta nik uste dut guzti honek balioko duela bide-orri bat zehazteko. Hori egin ondoren, guzti honi jarraipena emango dion egitura bat sortu beharko da, jarri beharko dira pertsona batzuk eta baliabide batzuk lan honetara. Baina behintzat euskaldun izatearen kontzientzia indartzeko eta kultura kontsumoa indartzeko herritarren artean gogoeta hau egitea oso baliagarria izango da”.

**ENCARNI MIGALES**

“Euskararekin betidanik izan dudan harreman bereziak ekarri nau hona. Ni ez naiz hemen jaiotakoa, baina Elgoibarren bizi izan naiz umetatik, eta *Txinok* [Imanol Larrañagak] deitu ninduean gaur hona etortzeko gonbidatzen, baietza eman nion. Ekarpenen bat egiteko gai baldin banaiz, ondo. Ikastera ere etorri naiz, zer egin genezakeen aztertzeraz, ikusten dudalako euskalgintzak eta kulturgintzak bizi duten egoera ez dela onena. Balorazio ona egiten dut goizak eman duenaz. Jende ezberdin asko batu gara gaur hemen eta talde txikitik batuta jardun gara lanean, nor bere alorretik. Aberatsa izan da. Ideia oso onak dauzkagu denok, baina gero ideia horiek gauzatzea da hemen zaila. Baina gaur beste jende ez gara sekula batu eta hori bera positiboa iruditzen zait. Jendea gogotsu dago daukaguna aldatzeko edo hobetzeko, eta hori ona da. Gero beharko da dirua eta hor sortuko dira zailtasunak, baina hasiera ona da hau”.

**PEDRO GALARRAGA**

“Euskararenganako maitasunak eta euskarekiko ardurak ekarri naute hona gehien bat. Maite dut euskara, gustatzen zait euskaraz hitz egitea, euskaraz bizitzea, baina kezkatzen nau euskarak Elgoibarren, bai eta Euskal Herrian ere, bizi duen egoerak. Espektatiba apalekin etorri naiz egia esan, gauza jakina delako euskararen gaian espektatiba handiegiak izatea ez dela ona. Hobeto izaten da poliki-poliki egitea aurrera. Baina, poztu nau ikusteak nire arduraz edo kezka berak dituen beste jende bat ere badagoela. Euskararen egoerak kezkatzen duen beste jende horrekin batzeak alaitasun halako bat ematen dit eta poz horrek ere balio handia du. Norbanako moduan etorri naiz ni gaur hona eta poztuko nintzateke hau abiapuntua balitz beste gauza batzuk egiteko. Horrekin nahikoa daukat nik”.

**EDU URIBE**

“Euskal kultura maite dudalako etorri naiz ni gaur hona, euskara eta euskarazko jardunak sustatu nahi ditudalako. Jardunaldi interesgarriak izaten ari dira. Ondorio ezberdinen inguruan jardun gara hausnarrean, gure etorkizuneko lan-antolakuntza irudikatzen. Nahiko nuke Elgoibarren euskalgintzan eta kulturgintzan dihardugun eragileok elkar hobeto ezagutzea eta gure in-darrak eta gure dinamika ezberdinak hobeto aprobetxatzea”.



**Aman semerik egon ez (zeozer egingo dabanik): Etxagok aman seme(r)ik neri musikan irabaziko di(d)anik!** Irabaziko dion inor ez dagoela adierazteko.

## 'Érase una vez... Euskadi' filmerako eszenak grabatzen ari dira Elgoibarren



Santa Klara kalea grabazio gune erraldoi bihurtu du aste honetan *Érase una vez... Euskadi* filmeko lantaldeak. Teknikoak, aktoreak, kamioiak ilaran, kableak, fokuak, kamerak, catering-erako karpak... ikus daitezke Santa Klarako komentua zegoen paretik aurrera. Soarte Argazkiak dendaren gainean dagoen etxebizitza batean ari dira grabazio lanak egiten. La Canica Films zine ekoiztetxea 1985ean girotutako filma grabatzen ari da. Filmazio lanak abuztuaren 31n hasi zituzten eta hainbat herritan grabatu dituzte eszenak: Soraluzen, Arrasaten, Elgetan, Eibarren, Legazpin, Zumarragan... Filmeko protagonistak 12 urteko lau ume dira: Marcos eta bere lagun Jose Antonio, Paquito eta Toni. "Istorioaren helburua da 12 urteko lau umeren begiradatik kontatzea 80ko hamarkadako Euskadi", adierazi izan du filmea zuzentzen ari den Manu Gomezek, bere estreinako luzemetraiaz. Asier Flores, Aitor Calderon, Miguel Rivera eta Hugo Garcia aktoreak dira filmeko lau protagonistak.

## Bikustik bikote elgoibartarrak kontzertua emango du hilaren 16an Herriko Antzokian



Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta musikari elgoibartarrek osatutako Bikustik taldeak ekingo dio hilaren 16an *Oingoan bai!* musika zikloari. Elgoibarko Kultura Sailak sanbartolomeetarako aurreikusita zeuzkan hainbat kontzertu, baina azkenean bertan behera laga zituzten jaiak eta ez ziren kontzertu horiek egin. Hilaren 30erako Amoranteren kontzertua antolatu dute, azaroaren 6an Elanders eta Leok'k taldearen txanda izango da, eta azaroaren 19an itxiko du zikloa Testura taldeak. Herriko Antzokian izango dira kontzertu guztiak, 20:30ean.


## Animalien argazki erakusketak baditu irabazleak

Animaliei buruzko argazki lehiaketa antolatu zuen Elgoibarko Ludotekak, eta dagoeneko baditu irabazleak. Elgoibarren ateratako argazkiak izan behar zuten, eta animaliak agertzea ezinbestekoa zen. Zortzi argazki aurkeztu dituzte HH5-LH3 bitarteko haurren kategorian eta hamahiru, LH4-LH6 bitarteko haurrenean. Guztira, 21 lan. Sari nagusiak Gaztelekuko lantaldeak aukeratu ditu, eta ikuslearen saria aukeratzeko 89 herritarrek eman dute botoa. Hauek dira irabazleak:

- HH5-LH3:  
Jare Hernandez Fernandez.
- LH4-LH6:  
Xabat Ibirriaga Izagirre.
- Ikuslearen saria:  
Jare Hernandez Fernandez.



Jare Hernandez



Xabat Ibirriaga

## Maite Maiorak irabazi du La Covatilla ultratraila



**B**ejarreko mendilerroan (Salamanca, Espainia) jokatu zuten, urriaren 4an, La Covatilla mendi lasterketaren 5. ekitaldia. Saltakariak 86 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten, baina antolatzaileek ibilbidea hamar kilometroan laburtzea erabaki zuten, tenperatura hotzen ondorioz (-7 graduko sentazio termikoa) izoztua zegoelako ibilbidea, labankor eta arriskutsu. Maite Maiora bikain moldatu zen baldintza gogor horietara eta esan du izotza, haizea eta behelainoa baldintza "ederrak" izan zirela Bejarreko mendilerroan korrika aritzeko. Mendararra estreinakoz lehiatu zen proba honetan eta erakustaldia emanez goilendu zen. Erritmo bizia ezarri zuen hasieratik amaierara eta ordubete eta 5 minutuko aldea atera zion helmugan bigarren sailkatuari. Maiorak 9:47:04 denborarekin osatu zuen proba eta 10:52:10 denbora egin zuen bigarren egin zuen Elena Gallardok. Ana Cristina Constantin (11:29:01) sailkatu zen hirugarren postuan.

## Julen Urruzolak Asobal Ligan debuta egin du Bidasoarekin

Bidasoa eskubaloi taldeak 28-21 irabazi zion Nava taldeari aurreko domekan, Artalekun, Asobal Ligako laugarren jardunaldiko neurketan. Irungo taldearentzat partida bat gehiago zena betirako gogoan iltzatuta gertatu zaio Julen Urruzola Pagazartundua (Elgoibar, 2002) jokalaria gazteari, Asobal Ligan debuta egin zuelako, eta gol bat ere sartu zuelako. Urruzolak 2019-2020 denboraldi hasieran jaso zuen Bidasoaren deia, 17 urte zituenean. Denboraldi horretan Irungo taldeak egin zituen hainbat entrenamendu saiotan hartu zuen parte beste gazte batzuekin batera, baina Sanloko senior eta jubenil taldeekin lehiatu zen. Irungo taldeak Olai zaga kiroldegian jokatu zuen lagunarteko partida batean elastiko horia jantzita ere jokatu zuen Urruzolak. Orain, Asobal Ligan debuta egin du 2,04 metroko garaiera duen lehen lerroko jokalaririk.



## Mayi Mujikak irabazi du Aiarako Mendi Duatloia

Aiarako Mendi Duatloia jokatu zuten urriaren 3an, Arespalditzan. 2020ko Euskal Herriko Mendi Duatloien Zirkuituko hirugarren proba izan zen eta Mayi Mujikak aurreko bi lasterketetan (Beasainen eta Urduñan) lortutako bigarren postuak ondu zituen, garaipena eskuratu.



Sei kilometro korrika egin zituzten lehenik, 1,5 kilometro bizikletan gero eta kilometro eta erdi korrika amaieran. Ibilbide lokaztuan lehiatu ziren, eta horri esker lortu zuela garaipena azaldu du Mujikak. "Nire ezau garrietarako motzegiak eta biziak dira halako probak. Horregatik, zenbat eta ibilbide teknikoagoa edo gogorragoa izan, hobe, eta oraingoan lokatzetan ibili beharrak eman zidan abantaila", esan du. Bizkor Bizikletak etxearen babesarekin arituko da aurten mendi duatloia zirkuituan. Hamar proba hartuko ditu barne aurtengo txapelketak eta denetan lehiatzeko asmoa du. Izan ere, pandemia dela-eta, bertan behera geratu dira hainbat mendi lasterketa. Euskal selekzioko kidea den Mujikak mendi lasterketen Munduko Kopan lehiatzeko asmoa zuen aurten, baina hori ere ez da jokatu. "Ziurgabetasuna da nagusi eta momentuan erabaki beharko dugu zer probetan parte hartuko dugun. Dauden proba apurretan izena ematea ere garesti dago, berehala agortzen baitira mugatuta dauden plazak", azaldu du.

## Idorbeko igoerarik ez; Javier Ezenarro oroitzarrea bai

Aurten ez da Julian San Juanen Oroimenezko San Pedroko igoerarik jokatu. Hala erabaki du Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak, txirrindularien eta ikusleen ongizatea ziurtatzerik ez zegoela ikusita. Urriaren 12an jokatu behar zuten 29. edizioa. Aldiz, Mendaroko Txirrindulari Elkarteak jakitera eman duenez, urriaren 17an jokatu da Javier Ezenarro Oroitzarrea txirrindulari lasterketa, baina industrialdean hasi eta bukatuko da.

**LANA.....**

**Eskaerak**

Euskal dantzak irakasteko lagun bat behar da, Mendaron. ☎ 687 203 173

**Eskaerak**

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, eta baita etxeko lanak egiteko ere. ☎ 657 155 078

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Nahiago, etxeko langile moduan. ☎ 631 121 148

Neska euskalduna eta gaztea umeak zaintzeko prest. Goizez, arratsaldean zein egun osoan, orduka. Eskolako lanak egiten ere laguntzen diet umei. Esperientzia dut, haurtzaindegi batean lan egindakoa bainaiz eta gidabaimena ere badut. ☎ 688 697 204

Pertsona nagusiak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. ☎ 604 183 037 (Teresa)

Adinekoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 649 044 223

Umeak zainduko nituzke, baita ikastetxetik jaso edo hara eraman ere. Euskalduna naiz eta esperientzia daukat. ☎ 615 124 660

Umeak zaintzeko edo eskolara eramateko prest nago. Euskalduna naiz eta esperientzia daukat. ☎ 663 695 410

Gurekin bizitzeko etxeko langilea behar dugu, adinekoak zaintzeko. Euskalduna. Laguntza izango luke. ☎ 615 006 733

Adinekoak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest nago. Ordutegi malgua daukat. ☎ 632 116 534

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 382 330

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke, bai eta etxeko eta lokaletako garbiketa lanak egin ere. Adinekoak zaintzen eskarmentua daukat eta ziurtagiri soziosanitarioa ere badaukat. Berehala lanean hasteko prest nengoke. ☎ 688 739 536

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Euskalduna naiz eta titulazioa daukat. ☎ 626 490 986

Klase partikularrak emango nituzke. Lehen Hezkuntzako ikasleei ikasgai guztietan laguntzeko moduan naiz, eta LHtik gorako mailetan, bereziki, giza-zientzien alorreko gaiak emango nituzke. Euskalduna naiz. ☎ 639 635 939

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 980 531

Edozein lan egiteko prest nago. 12 urteko esperientzia daukat adinekoak zaintzen. ☎ 651 573 192

Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 620 765 432 (Olatz).

**ETXEBIZITZAK.....**

Bikote elgoibartarrak arrazoizko prezioa duen pisua hartuko luke alokairuan. ☎ 619 966 696



**I. URTEURRENA**

**Jesus Mari Ansuategi Cobo**

2019ko urriaren 15ean hil zen, 54 urte zituela

**Joan zinen gu hemen utzita, baina jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.**

Zure familia



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Euzkoako Finantza Administrazioetako Lanbide Kontzilia



**ROSA Ma PINTADO**

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Errentan bizi naiz, eta bizi naizen eraikinaren teiltatua hondatuta dago. Horregatik, itokinak dauzkagu etxean. Behin baino gehiagotan ohartarazi diot jabeari, baina hark komunitateko presidentearengana bidali nau beti, berak ezin duela ezer egin arrazoituta. Duela egun batzuk, horrenbeste alditan esan niola-eta, presidentea etxera etorri zitzaidan zer geneukan ikustera, baina ez zuen itokinak konpontzeko konpromisorik agertu. Jakin nahi nuke zer egin dezakedan.**

Alokairuan egonda, zuk zeuk ez daukazu inolako lotura juridikorik komunitatearekin, etxejabearekin baizik. Ugazabarekin daukazu hitzarmena lotuta zuk. Beraz, haren kontra baino ezin duzu egin, eraikinaren jabetza horizontalari lotutako kontuak etxebizitzaren, lokalen, garajeen, trastelekuen... jabeei eragiten dielako.

**Ondorioa: Errentan dagoenak ez dauka titulu juridikorik jabeakideen komunitateari ezer eskatzeko. Eraikineko elementuren baten jabeak baino ezin du egin hori. Hala ere, etxejabearen betebeharrak nagusia da alokairuan emanda daukan etxea bizitzeko baldintza duinetan izatea, eta zuk diozun kasu honetan ez du bere betebeharra betetzen, hezetasun-arazoek bizitzeko baldintza egokiei zuzen-zuzenean eragiten dietelako.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2





Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Luken**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Primeran pasa eguna! Sorginen eta iratxoen partez, muxu potolo bat, *famau!*



Zorionak, **Gorka**, asteartean, urriaren 13an, 5 urte handi egingo dituzulako. Primeran ospatuko dugu! Mila kilo patxo etzekoen, eta bereziki aittita-amonak eta Julenen partez.



Zorionak, **Ibon**, zure 8. urtebetetzean. Jai eguna denez, ondo-ondo ospatuko dugu. Etxeko guztien partez.



Zorionak, **Kaiet!** Bihar 8 urte beteko dituzu! Maite zaitugu! Etxekoen partez! Muxu asko!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



**Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

**943 743 704 / 688 769 657**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR




**ME MAKINA ERREMINTA MUSEOA**

**ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK 2020**  
**ANTZINAKO OGIBIDEAK**  
ERREMENTARIAREN ETA ABARKAGILEAREN ZUZENEKO ERAKUSTALDIAK

**2020/10/17a larunbata**  
Ordua: 11:30etik 13:00etara.  
Lekua: Makina Erremintaren Museoa.  
Doakoa. Leku kopuru mugatua. Izena eman behar da.  
[museoa@museoa.eus](mailto:museoa@museoa.eus) emaillean edo **943 748456** telefono zenbakian.




## 16 BARIKUA

**19:00** Bideo foruma: 'El balcón de las mujeres'. Hizlaria, Loredi Salegi. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**20:30** 'Oingoan bai!': Bikustik. Patxi Zabaleta eta Jon Gurrutxagak osatutako bikotearen emanaldia, Herriko Antzokian.

## 17 ZAPATUA

**10:00** Elgoibarko artisau azoka. Maalako parkean.

**11:30** Errementari eta abarketagile ofizioen erakustaldia, Makina Erremintaren Museoa. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan. Edukiera mugatua izango da eta izena emateko eskatu dute: [museoa@museo.eus](mailto:museoa@museo.eus) edo 943 748 456

## 18 DOMEKA

**12:30** Kontzertua: Udal Musika Banda. Herriko Antzokian.

## 23 BARIKUA

**20:30** Antzerkia: 'Zaldi urdina'. Herriko Antzokian.

### Zinea (Herriko Antzokian)

'Padre no hay más que uno 2'

9 barikua: 21:30  
10 zapatua: 19:00 / 22:15  
11 domeka: 19:00  
12 astelehena: 21:30

'Onward'

11 domeka: 16:30

'Las niñas'

(Ongarri)  
15 eguena: 21:30

'La familia que tú eliges'

17 zapatua: 19:00 / 22:15  
18 domeka: 19:00  
19 astelehena: 21:30

'Scooby'

18 domeka: 16:30

'Las vidas de Marona'

(Ongarri)  
22 eguena: 21:30

### Botika ordutegiak

09:00 - 13:00  
16:00 - 20:00

### GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00  
Iluntzean: 20:00-22:00  
Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

9 BARIKUA	10 ZAPATUA	11 DOMEKA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego
12 ASTELEHENA	13 MARTITZENA	14 EGUAZTENA
Egunez Garitaonandia	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia
15 EGUENA	16 BARIKUA	17 ZAPATUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean ---
18 DOMEKA	19 ASTELEHENA	20 MARTITZENA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola
21 EGUAZTENA	22 EGUENA	23 BARIKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

\* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142  
\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638  
\* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384

**Urte guztian, gauetz: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar) - 943 206 984

### Irailean hildakoak

- **Atanasio Olazabal Eizagirre**  
92 urte, irailak 1
- **Cristina Lizundia Garate**  
90 urte, irailak 4
- **Iñaki Alvarez Galdos**  
86 urte, irailak 5
- **Ana Maria Ruiz Lopez**  
94 urte, irailak 6
- **Maria Luisa Muller Acorda**  
56 urte, irailak 9
- **Benita Juaristi Arostegi**  
89 urte, irailak 11
- **Pedro Maria Astigarraga Mugertza**  
76 urte, irailak 14
- **Maria Teresa Cengotita Sanchez**  
86 urte, irailak 15
- **Izaskun Soraluze Lizundia**  
64 urte, irailak 15
- **Angel Agirregomezkorta Oregi**  
74 urte, irailak 19
- **Tomas Santos Alba**  
80 urte, irailak 22
- **Valeriana Saiz Gonzalez**  
84 urte, irailak 23
- **Miren Vallejo Arriaga**  
97 urte, irailak 25
- **Luisa Torrente Carrasco**  
87 urte, irailak 26



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



## GREMIOEN GIDA

Arozlegiak  
Erreformak  
Igeltseritza  
Pintura  
Leihoak  
Iturgintza  
Elektrizitatea

Gidan agertzearen onurak!

**21€**  
hilero

21 Cren truke, hileru, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian!

**12**  
aldiz urtean

**BARREN** astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihu ikusiena.

**4.885**  
die ostero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

**943 744 112**

Aita Agirre Kulturagunea, 3. J. 3. esk  
20870 ELGOIBAR

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)



## COMBI SIEMENS KG39NXIDA HOZKAILUA

**879 €**

(prezioa unitateko)

- Hezetasun-kontrola duen HyperFresh kavola, frutak eta barazkiak luzarago fresko kontserbatzeko.
- Hozkailuaren atea 90° taraino zabaltu daiteke modu honetan kaxoi guztietara sartzeko aukera dago: paretaren ondoko instalazio perfektua.
- LED argiztapena.
- SuperCooling: azkarrago hozten du.
- MultiAirflow sistema: airea uniformeki banatzen du hozkailu berriaren, temperatura konstante mantenduz.
- Seguritasuneko kristalezko erretiluak.
- Energia-mota A+++
- No Frost.
- 278 litroko edukiera.
- Hatz marka kontrako altzairu herdoilgaizta.
- Altuera 203 cm.



**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dirandako prezioak. Produktuak agortu arte.



Eraikitzen:

**AB** ANTON BILBAO  
GRUPO



- **Elgoibarko erdigunean.**
- **10 etxebizitza, 3 logelakoak. Logela guztiek kanpora ematen dute.**
- **Obra hasiera: 2020. urtearen amaiera.**

Informazio gehiago